

Infinitu-sinfoniak

Ispilu koloreko disdira txikiak baino ez ditut gogoan
oraindik ez zen, baina noizbait izango zen leku, une, inguru hartatik
orainaren aurrekari izan zen hartatik.

Han ez zen kresal usainik, neguko haize finik, eguzkiaren argi epelik
Arrazoi duzu, bai, ez zen lur erre usainik, eztanda soinurik, odol koloreko ibairik
baina hutsaren isiltasuna baino ez dut gogoan
oraindik ez zen leku, une hartatik.

Han ez zen urretxindor kanturik, hanka azpian orbelik, gauean itsasargirik
Eta egia da, bai, ez zen iluntasunean oihurik, ohe azpian mamurik
baina hotza izan beharko luken –eta ez zen– sentsazioa baino ez dut gogoan
ez zen leku hartatik
eta han ez zen udaberriko kolore ederrik, edo begirada itzuliko zuen begirik.